

LHKren Txostena: EAEko 2027 urterako laneko jaiegunen egutegi ofizialari onartzeko Dekretu Proiektua



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2027 URTERAKO LANEKO JAIEGUNEN EGUTEGI OFIZIALA ONARTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA

Aurrekariak

2026ko martxoaren 9an Kontseilu honen egoitzan Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak prestatutako Dekretu Proiektua sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2027 urterako Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzekoa.

Aipatutako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak testu hori bidali zuen Lan Harremanen Kontseilu honetara, LHKri buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3. artikulua xedatutakoa betez, Lan Harremanen Kontseiluak dagokion txostena egin dezan.

Gogoeta orokorrak

Dekretu Proiektu honek 2027 urterako Euskal Autonomia Erkidegoko laneko jaiegunak ezartzen ditu, hain zuzen ere, lanaldia, lanaldi bereziak eta atsedenaldira arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuan finkatutako jarraibideen markoan.

Aipatutako Errege Dekretuak Estatuaren eremuko laneko jaiegunak ezartzen ditu. Autonomia Erkidegoek ezin alda ditzakete horietako batzuk. Beste batzuk, berriz, aldatu egin daitezke, eta dagokion autonomia erkidegoak tradizioz berezkoak dituen beste batzuek ordeztu.

2001/1983 Errege Dekretuak autonomia erkidegoei ematen dien aukeratzeko ahalmen hori modu honetara zehazten da:

a) Martxoaren 19a ala uztailaren 25a aukeratu ahal izatea.

b) Errege Dekretuko 45. artikulua lehen zenbakiko d) atalean aipatzen diren jaiak (Ostegun Santua, urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania, eta martxoaren 19ko San Jose edo uztailaren 25eko Santiago Apostolua) tradizioz berezkoak dituzten beste batzuek ordezteak.

c) Astelehenera eramaten diren jai nazionalak autonomia erkidegoetako jaiak ordezteak; horrela gertatzen da egutegi ofizialean ezarritako jaiak igandean suertatzen denean.

LHKren Txostena: EAEko 2027 urterako laneko jaiegunen egutegi ofizialari onartzeko Dekretu Proiektua



Berariazko gogoetak

Dekretu Proiektuan ezartzen den eta, gero, txostena egin dezan, Lan Harremanen Kontseiluari bidaltzen zaion 2027rako laneko jaiegunen egutegia egiteko aintzat hartu dira Errege Dekretuan adierazitako parametroak eta parametro hauek eskaintzen dituzten aukerak.

Dekretu Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2027rako jaiegun espezifiko gisa ezartzen du martxoaren 29a, Pazko Astelehena.

Autonomia Erkidegoko jai izendatzeko erabiltzen den jai nazionala abuztuaren 15a da, Ama Birjinaren Jasokundea, igandea denez hurrengo astelehenera aldatuko litzatekeena.

Era berean, Dekretu Proiektuan martxoaren 19ko San Jose jaiaren alde egiten da, uztailaren 25eko Santiago Apostoluaren jaiaren ordez.

Horrela, bada, jai nazionalak Autonomia Erkidegoko jaiez ordeztuko aukera erabiltzen da, 2001/1983 Errege Dekretuak administrazio autonomikoei ematen dien ahalmenaren barruan, txosten honetako gogoeta orokorretan azaldu denez.

Irizpena

Lan Harremanen Kontseiluaren Txostenen Batzordeak bilera da izan du 2026ko martxoaren 18an, Euskal Autonomia Erkidegoko 2027. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen Dekretu-proiektua aztertzeko.

Bilera horretan, CCOOk, UG Tk eta Confefaskek izendatutako pertsonak aztertutako Dekretu Proiektuaren testuarekin ados daudela adierazi dute.

Bestalde, LABek adierazi du ez dagoela ados Dekretu Proiektuarekin, uste baitu, euskal erakundeek, erakunde eta eragile politiko eta sozialen arteko akordioaren bidez, gaitasuna izan beharko luketela egutegi propio bat egiteko, gure errealitate politiko, kultural eta sozialaren ispilu izango litzatekeena. Ildo horretan, aurrez ere egin bezala, neurri handi batean inposatua den eta erakundeen izaera akonfesionalarekin bat ez datorren egutegi bat dela salatu du.

Bestalde, LABek deitoratu du euskal eragile sindikalek eta enpresariak, arlo honetan, alderdien borondatearen autonomia askea ez erabiltzea, enpresetako eta lantokietako negoziazio kolektibotik abiatuta, euskal gizartearen nazio-nortasuna eta errealitate politiko, kultural eta soziala errespetatzen duten lan-egutegiak osatzeko aukeran sakontzeko.

Bilbon, 2026ko martxoaren 18an.